

Irudimena askatzera gonbidatzen duen Bizkaidatz Literatura Saria abian da

Bilbo. Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailak antolatzen duen Bizkaidatz Literatura Sariaren bosgarren edizioa atzo aurkeztu zuten Bilboko Foru Liburutegian Josune Ariztondo Kultura diputatuak eta Goizalde Landabaso kazetari eta idazleak.

Lehiaketak irudimena askatzea du xede, eta horretarako, kontakizun biren hasiera proposatzen zaie partaideei -bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz-, gero eurek amai dezaten. Aurten, bi kontakizun hauen hasiera proposatuko zaie: euskaraz, Goizalde Landabasoren Memoriaren mutazioa, eta gaztelaniaz, aldiz, Juan Carlos Márquezen Donde ya solo hay mar.

Euskarazko eta gaztelaniazko lehenengo saridunek, 1.500 euro eta diploma bana jasoko dituzte; bi kategorietako bigarren saridunek, 500 euro eta diploma bana; eta euskaraz zein gaztelaniaz finalista geratzen direnek diploma bana. Lehiaketan 16 urtetik gorakoek hartu dezakete parte. Epaimahaia modalitate bakoi-tzean proposatutako idazleek osatuko dute, baita David Tijero Osorio eta Iñaki Mendizabal (euskarazko atalean), hala nola Esther Zorrozueta eta Seve Calleja (gaztelarazkoan). Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailak duen helburu nagusia da, batetik, bizkaitarren irudimena eta sormena bultzatzea eta, bestetik, bi egun berezi goraipatzea, hau da, atzo ospatu zen Liburutegiaren Nazioarteko Eguna eta apirilaren 23ko Liburuaren Nazioarteko Eguna.

Idazleak

Goizalde Landabaso bilbotarrak Korte bat, mesedez argitaratu zuen 2000. urtean eta 2005ean, Jat poesia liburua. Hainbat lan ere argitaratu ditu, argitalpen digitaletan zein paperezkoetan. Bestalde, Juan Carlos Márquez (Bilbo, 1967) Informazio Zientzietan lizentziaduna da eta orain dela urte batzuetatik hona Madrilgo Idazle Eskolan